

Hizkuntza jokaera-aldaketa legeen bidez

William F. Mackey

Legeak hizkuntza jokaera-aldaketan dituzten mugak aztertzen dira artikulu honetan. Hizkuntza jokaera-aldaketa kultura-, demografia-, geografia- eta politika-baldintzen pean dago Mackeyren ustez eta, beraz, gizarte-aldaketa orokorragoari lotu behar zaio. Hizkuntza jokaera-aldaketaren mekanismo soziolinguistikoak hauek lirateke: hizkuntza jokaera hitzunen gaitasun erlatiboaren arabera da eta gaitasun erlatibo testuinguruko hitzunen masa kritikoaren arabera. Oinarrizko mekanismo soziolinguistiko horietan eragina duten heinean, eta orduan bakarrik, izango dira legeak hizkuntza jokaera-aldaketarako tresna.

Artikulu hau *Langue et droit* (1989) liburutik hartua da. (Argitaratzaileak: P. Pupier eta J. Woehrling. Argitaletxea: Wilson & Lafleur Ltée, Montreal, 45-54 orr.).

This article talks about the limits laws have when changes occur in the linguistic performance. Mackey thinks that changes in the linguistic performance are determined by culture, demography, geography and politics, thus, we should relate it to social changes in general. The socio-linguistic mechanisms in the changes in the linguistic performance probably are: the linguistic performance depends on the relative capacity of the speakers and the relative capacity depends on the critical mass of the speakers in context. As far as these basic socio-linguistic mechanisms are effective, and only if this happens, should laws be a valid instrument for changes in the linguistic performance.

This article has been taken from *Langue et droit* (1989). (Publishings: P.Pupier and J. Woehrling. Publishing house: Wilson and Lafleur Ltée, Montreal, pages 45-54).

«Hizkuntza politiken historia luzean zehar, Erdi Aroaren bukaeratik gaurdaino, hizkuntza legeek ez dute beren helburua lortu, hau da, hizkuntza jokaerak aldatzea»

Hizkuntza politiken historia luzean zehar, Erdi Aroaren bukaeratik gaurdaino, hizkuntza-legeek ez dute beren helburua lortu, hau da, hizkuntza jokaerak aldatzea. Badirudi, lege horien egingarritasuna, helburu-motaren (sustapena, tolerantzia, debekua) eta testuinguru geolinguistikoak baldintzatutako hizkuntza komunitate-motaren (regresiboa, progresiboa edo residuala) arteko erlazioan datzala. Erlazio horien arabera ulertu behar da hizkuntza legeen arrakasta edo porrota.

Zergatik ez du hindierak, pixkanaka-pixkanaka, ingelesa ordezkatu, Indiako konstituzioak aurreikusita bezala? Zergatik ez da erabiltzen gaelikoa, Irlandako Errepublikako hizkuntza ofiziala, legeak eskatutako neurrian? Zenbateraino euskararen ofizialtasunak aldatu du euskaldunen hizkuntza-jokaera? Nola aldera daitezke Kanadan frantsesaren erabilerak izan dituen aldaketak eta Espainian katalunierak izan dituenak, biek antzeko hizkuntza-legeak izanda? Zenbateraino aldatu dute erakundeetako elebitasunari buruzko legeak eta arauak Kanadako administrazioaren hizkuntza-jokaera?

«Hizkuntza-legeak eraginkorrak dira sustatu nahi den hizkuntzari atxekita dauden beste alorretako nagusitasunak gertatzen direnean: nagusitasun kulturala, ekonomikoa, demografikoa, e.a.»

Legeen hartzaile diren biztanleen hizkuntza-ekologia aldatzeko gobernuak duen ahalmenaren arabekoak dira, hein handi batean, lehen aipaturiko kasuen arteko aldeak. Hizkuntza-legeak eraginkorrak dira sustatu nahi den hizkuntzari atxekita dauden beste alorretako nagusitasunak ematen direnean: nagusitasun kulturala, ekonomikoa, demografikoa, e.a. Nagusitasun horiek ahalbideratuko dituzte masa kritikoa, gaitasun maila altua eta hizkuntza-jokaeraren aldaketa erraztuko duten baldintzak.

Mendeetan zehar aurki daitezke hizkuntza eta legearen arteko harremanak. Aintzinean, ordenantzak eta debekuak, betebeharrak alegia, ziren nagusi. Karlomagno latina erabili beharra ezarri zuen¹. Frantzisko I.ak latinaren erabilera juridikoa debekatu zuen. Luis XIV.ak kataluniera erabiltzea debekatu zuen. Jakobinoek legeak egin zituzten Frantziako hizkera guztiak, Parisekoa salbu², deuseztatzeko. Badirudi, politika hori indarrean dagoela, oraindik ere³.

Lortu al dute debeku horiek biztanlegoaren hizkuntza-jokaera aldatzea? Hala gertatu da erregimen autoritarioa izan duten hainbat nazio-estatutako hizkuntzatan; baina bakarrik, hizkuntza era sistematikoan suntsitzeko politikak luzaroan eta modu estu-estuan aplikatu ondoren. Debeku-politika horiek ez daude jadanik modan. Aldiz, gaur egun eskubideez hitz egiten da. Hizkuntza-jokaeraren aldaketa hizkuntza irre-

dentismo-politikaren ikuspegitik egiten ari da gero eta gehiago. Esaterako, 1988ko martxoaren 14an, Strasburg-en, Europako Kontseiluko Eskualde-Lantaldeak Europako hizkuntza historikoen Agiria onartu zuen, urte askotan eztabaidatu ondoren. Lege-egitasmo horrek hizkuntza eskubidea aitor-tzen zien gutxiengo nazionalei⁴.

Hizkuntza-gaiei dagokienez, legeek nolabaiteko lengoaiaren filosofia edo berariazko hizkuntza-teoriaren morrontza jasaten dute. Baldin eta hizkuntza batez ere, komunikazio-sistema bada, eta hori da eguneko hainbat teoriak proposatzen duena, edozein hizkuntzak balio du gizartea funtzionarazteko, elkarkomunikazioa baita garrantzitsuena. Aldiz, hizkuntza, kultura bakoitzak eratutako kategorien arabera, unibertsoa ulertzeko bide ematen duen errepresentazio-sistema dela pentsatzen baldin bada, orduan, hizkuntza hori bazterzea gizakiaren identitatearen aurkako erasotzat hartuko da.

Eskubideaz zein debekuz hitz egin arren, legeek ez dute ia inoiz kontutan hartzen gizakiengan lengoaiak duen garrantzia. Ez dituzte bereizten, funtsezkoa bada ere, hizkuntza eta lengoia. Funtsezkoa hain zuzen, hizkuntza aurretik lengoia izan delako, ez bakarrik espezierengan, baita norberaren baitan ere. Izan ere, lengoia ez da bakarrik komunikazio-sistema, legeek aitortzen duten bezala; lehenengo eta behin errepresentazio-sistema da, unibertsoa ulertzeko bidea, gogora ekartzeko eta kanporatzeko modua, gizakiaren jokaerarik sakonenaren bidez. Alda lezakete legeek jokaera hori?

Hizkuntzen erabilerari buruzko legeak, askotan, hizkuntza politikaren aplikazio izaten dira. Hizkuntza politika oro, gizarte-ingurunearen barruan egiten denez, ezin da fenomeno autonomotzat aztertu (Mackey 1980). Hizkuntza-jokaera legeen bidez aldatzeko aukera kultura-, demografia-, geografia- eta politika-baldintzen pean dago. Adibidez, franko germanofonoek, Galia konkistatu ondoren, ezin izan zuten beren hizkuntza inposatu, galo-erromatarren kultura indartsuagoa baitzen. Gizarte-mailako muga-baldintzak ere hor daude. Konformismorik ez duen gizartearen hizkuntza-jokaera aldatzea zaila da; askoz ere errazagoa da gizarte konformistetan. Esate baterako, begi bistakoa da hizkuntza arloko joera garbizaleek arrakasta handiagoa izan dutela historiaren aldi klasikoetan.

Era berean, badaude geografia- eta politika-mailako muga-baldintzak. Racine izan zen, oker ez banago, Parisetik ehun lekoatara bere burua ulertaraztea ezinezkoa zela esaten zuena. Bestalde, nekez alda liteke pertsona baten hizkuntza-

«Lortu al dute debeku horiek biztanlegoaren hizkuntza-jokaera aldatzea? Hala gertatu da erregimen autoritarioa izan duten hainbat nazio-estatutako hizkuntzatan; baina bakarrik, hizkuntza era sistematikoan suntsitzeko politikak luzaroan eta modu estu-estuan aplikatu ondoren»

*«Hizkuntza-
jokaeraren aldaketa
hizkuntza
irredentismo-
politikaren
ikuspegitik egiten ari
da gero eta gehiago»*

jokaera pertsona horren gainean inolako kontrolik izan gabe. Adibide argi eta garbia ikus dezakegu nazioartekoak diren hizkuntzen kasuan. Frantziako I.aren ondoren, Frantziako estatuak frantziara etengabe inposatu izan du diplomaziarako hizkuntza gisa. Politika horrek ez du beti arrakastarik izan. Kasurako, Kong Hans-en (Eskandinaviako Joan III.a) erregealdian, Frantziako Karlos IX.ak (Frantziako I.aren ondorengoa eta Catherine de Medicis-en semea) Eskandinavia batuko erregeari frantsesez idatzi zion, eta ez latinez egin behar zuen bezala. Erantzuna jaso zuen, baina ez frantsesez, ezta latinez ere, suomieraz baizik. Bazirudien, nolabait adierazi nahi ziola European nazio batek ez zuela inolako eskubiderik bere hizkuntza inposatzeko beste nazioekiko harremanetan. Elkartrukeak suedieraz ospetsua den laukoa sortarazi zuen⁵.

*«Lengoaia ez da
bakarrik
komunikazio-sistema,
legeek aitortzen
duten bezala;
lehenengo eta behin
errepresentazio
sistema da,
unibertsoa ulertzeko
bidea, gogora
ekartzeko eta
kanporatzeko modua,
gizakiaren jokaerarik
sakonenaren bidez.
Alda lezakete legeek
jokaera hori?»*

Azkenik, badaude barruko muga-baldintzak. Hizkuntza-jokaera era askotan adieraz dezakete administrazioak zein herritarrek. Beren hizkuntza aspalditik langileekin erabili ondoren, zerbitzu bateko zuzendaritzakoak behartuta egon daitezke momentu batean, hizkuntza politika berria indarrean jartzen ari denean hain zuzen, langile horiekin beste hizkuntza erabiltzera. Aldiz, gobernu-harremanetan ordurarte hizkuntza atzeritarraz baliatu ondoren, gutxiengo linguistiko batek badu, egoera berria dela medio, agintariekin bere aintzineko hizkuntzan hitz egiteko aukera. Horra hor, besteak beste, hizkuntza jokaera-aldaketaren bi adibide.

Zenbateraino alda litezke arau-bidez jokaera hauek? Zerenolako aldaketaz ari gara? Gure bi adibideetan gertatzen dena gogoratuko dugu: lehen kasuan, pertsona bati ohizkoa ez duen hizkuntzan lan egiteko eskatu zaio. Bigarrenean, ohitura diglosiko zaharren aldaketan dago gakoa. Dirudieenez, hizkuntza politika indarrean jartzen saiatu diren herriek honako arazo honekin egin dute topo: nola aldatu legeen bidez gizakiaren hizkuntza-jokaera. Politika guztiak saiatu izan dira arazo honi garrantzia kentzen. Horretarako, hainbat egokitzapeni esker, herritar taldeek jasan dituzten hizkuntza-jokaera arloko presioak ezkutatu ohi dira. Artikulu honetan neure esperientzia azalduko dut, Kanadan eta Irlandan ezarritako hizkuntza politikari buruzko galdesortan kasua, hain zuzen ere. Horrekin batera, beste hainbat herritan egindako azterketak ere aipatuko ditut.

Ezer baino lehen, legearen eta giza hizkuntza-jokaeraren arteko harremanen berri eman dituzten zenbait printzipio gogoraziko dizkizuet. Ondoren, zenbait herri printzipio

horiek aplikatzean izan dituzten arazoak azaltzen saiatuko naiz. Azkenik, legeen aplikazioaren esperientzia aztertu ondoren, hizkuntza-politikaren egokitzapenez arituko naiz.

Bi printzipio nagusik sortzen dituzte hizkuntza-legeak. Lehenena politikatik dator; bigarrena filosofiatik. Aurreneko kasuan egokitze-printzipioak dira; bigarrenean eskubide-printzipioak: eskubide naturala, identitate-eskubidea eta ezberdintasunerako eskubidea.

Aipatu lehen printzipioa oinarrizko beste bi printzipiotatik sortzen da, nortasun-printzipiotik edota lurraldetasun-printzipiotik alegia. Nortasun-printzipioaren arabera, estatua gizakiaren beharretara dago; lurraldetasun-printzipioaren arabera, ordea, gizakia da estatuaren beharretara dagoena. Eskualde bakoitzak bere hizkuntza duen nazio-estatueta eta zenbait federaziotan lurraldetasun-printzipioak agintzen du. Nortasun-printzipioa hainbat estatu elebiduneko hizkuntza-politikaren oinarri da, kasurako Finlandia, Kanada eta Hego-Afrikako Errepublika. Dena dela, bi politikak batera eman daitezke maila desberdinetan. Suiza eta Belgika bezalako estatueta, eskualde bakoitzak bere hizkuntza duenez, estatu-hiriburuak behartuta daude nortasun-printzipioa erabiltzera. Printzipio politikoaren aplikazioa-modua estatuko gobernuak aukeratzen duen elebitasun instituzionalaren ereduaren arabera da (Mackey 1980).

Herritarren ohizko jokaeraren erabateko aldaketa helburu duten hizkuntza legeek ez dute sarritan inolako eraginik izaten. Aritu baten txostenak adierazten duenez, Afrikako hainbat herrialdeetako biztanlegoaren %90ak ez du bere herrialdeko hizkuntza ofiziala ezagutzen, nahiz eta, teoriaz, hizkuntza hori herritarren eta gobernuaren arteko komunikaziorako erabilia izan. Ez du ezertarako balio ezagutzen ez den hizkuntzaren gaineko legerik emateak. Esaterako, Irlandak 1949an independentzia lortu zuenean gaelikoa errepublika berriko hizkuntza nazionala izatea nahi izan zuten; gaur egun ingelesa nagusitu da. Urte hartan ere (1949), India post-inperialaren lehenengo Konstituzioak hindiera ezarri zuen nazio-hizkuntza ofizial, denboraldi baterako ingelesa onartzen bazuen ere. Ingelesetik hindierara igarotzeko gutxi gorabeherako epea hamar urtekoa zen. Hala ere, epe hori hirutan berritu da. Egun, gai publikoetarako ingelesa erabiltzen da. Eginezinak diren printzipioak aplikatzeak sinesgarritasuna galtzea dakarkio hizkuntza politikari. Egia esan, egingarria dena betetzea ere oso zaila izaten da. Kanadako hizkuntza politikaren esperientziak adibide zehatzak ematen

«Konformismorik ez duen gizartearen hizkuntza-jokaera aldatzea zaila da; askoz ere errazagoa da gizarte konformistetan.»

«Bi printzipio nagusik sortzen dituzte hizkuntza-legeak. Lehenena politikatik dator; bigarrena filosofiatik. Aurreneko kasuan egokitze-printzipioak dira; bigarrenean eskubide-printzipioak: eskubide naturala, identitate-eskubidea eta ezberdintasunerako eskubidea.»

*«Nortasun-
printzipioaren
arabera, estatua
gizakiaren
beharretara dago;
lurraldetasun-
printzipioaren
arabera, ordea,
gizakia da estatuaren
beharretara
dagoena»*

*«Bi politikak batera
eman daitezke maila
desberdinetan. Suiza
eta Belgika bezalako
estatuetan, eskualde
bakoitzak bere
hizkuntza duenez,
estatu-hiriburuak
behartuta daude
nortasun-printzipioa
erabiltzera»*

dizkigu (Mackey 1983).

Quebec-en lurraldetasun-printzipioa aplikatu nahi izan zuten aldiberean, Kanadan eskubide pertsonalak hartu zituzten hizkuntza politikaren erreferentziatzat. Honako konpromezu hau hartu zuten Kanadan: herritarrei aukeratutako hizkuntzan -frantziara edo ingelesa- zerbitzua ematea. Funtzionario federalak milioi laurdena baino gehiago zirenez -gehienak anglofono elebakarrak, frankofono elebidunak oso gutxi izanik-, argi zegoen azken horiek eman ziezaieketela eta ez besteek herritarrei zerbitzua bi hizkuntzetan. Hala ere, estatu-mailan ezin izan zuten nortasun-printzipioa aplikatu, funtzionario elebidunak gutxi zirelako eta sakabanaturik zeudelako.

Une hartan, Gobernuak, munduko hoberenatarikotzat jotzen zuen burokraziaren hizkuntza-osakera aldatzea ezinezkoa zela ikusita, Funtzio Publikoa hiru modutara egokitzeari planteatu zuen:

1. nortasun-printzipioa eskualdeka aplikatzea;
2. lanpostu elebidunak errentabilizatzeko administrazioa berrantolatzea;
3. Funtzio Publikoko anglofonoak elebidun egitea.

Hizkuntza Ofizialei buruzko Legeak hizkuntza-politika eskualdatzeko tresna jaso zuen. Finlandiako hizkuntza politikaren ereduan oinarrituta, barruti elebidunak sortu ziren Kanadan ere (Mackey 1978). Barruti elebiduna lurralde baten antolaketa da eta, horren barruan, gobernuak herritarrek aukeratutako hizkuntzan -batean zein bestean- zerbitzua emateko konpromezua hartu zuen. Lege hori indarrean jarri zenetik ez da inolako zalantzarik izan estatuko hiriburua barruti elebidun egiteko. Hala eta guztiz ere, Legeak aholku-batzorde baten esku utzi zuen barruti gehiago sortzea. Batzordeak hamar urtez behin bildu beharra zuen, estatu-eroldan oinarrituta, barruti berriak definitu eta sortzeko, beti ere, erizpide bati jarraituz: eroldan, gutxienez biztanlegoaren %10 gutxiengo hizkuntzaren jatorrizko hiztun izatea, barruti elebiduneko hizkuntza hori ofiziala bihurtu ahal izateko.

Hiru urtez aholku-batzordekide izan ondoren, argi dago niretzat horrelako sistemak nekez lortuko lukeela bere helburua. Ez da hau zehaztasunetan hasteko une egokia, baina, labur-labur esan daiteke legea anbiguo samarra zela, berdintasunez aplikatzea ezinezkoa zela eta Funtzio Publikoaren berrantolaketa ez zela zuzena. Dena dela, herritarren eta

administrazioaren hizkuntza-jokaeraren aldaketa aztertzea da artikulu honetan interesatzen zaiguna. Has gaitezen, lehenik, herritarren kasuarekin.

Kanadako gutxiengo frankofonoak eta anglofonoak bisitatu ondoren, argi eta garbi ikusi nuen belaunaldi askotan zehar elebitasun diglosikoa bizi duen hainbat gutxiengo nekez bihur zitekeela elebakar, legeak agindu bezala. Berea ez zen hizkuntzan bat-batean hizketan hastea, jendearentzat asmakizunetan ibiltzea zen, hizkuntza-borrokarako burukideek herritarrak hizkuntza-jokaera aldatzera animatzen bazituzten ere. Ondorioz, frankofonoek salbu, herritar elebidunek ia ez zuten hizkuntza jokaera aldatu legeen bidez.

Administrazioan gauza bera gertatu zen, hots, ez zen aldaketa nabarmenik egon. Funtzionario espezializatuen motibazio nagusia lana eta karrerari loturik dagoela eta ez hizkuntzari kontutan hartzen bada, beren jokaera aldatzea ez da bat ere erreza. Pertsona heldu elebakarrak dira eta hizkuntza beharrak ama-hizkuntzaz baliatuz asetzen dituzte. Motibaziorik izatekotan, administrazio-mailakoa dute, lan-mailakoa alegia.

Elebitasun-sistema praktikara eramateko beharrezkoa zen hizkuntza burokrazia handia eta gai desberdinetan erantzukizunak izango zituzten zerbitzuak antolatzea: elebitasun-mailaren arabera lanpostuak mailakatzeko, arauak ematea, hizkuntzari buruzko galdesortak egitea, hainbat hizkuntza-programa martxan jartzea, e.a. Prozesu horretan sortutako araudiek (OLIM izeneko sistema), beraiek bakarrik, hainbat tomo osatzen dituzte. Sistema horren arrazoia bigarren hizkuntza lan-hizkuntza bezala erabiltzea da. Hogeitaz funtzionatu ondoren, ea sistema horrek benetan lortzen zuen lortu behar zuen helburua planteatu zen.

Galdera horri erantzun ahal izateko, galdeketa-batzorde batek hiru urtez lan egin zuen (Bibeau et al. 1976). Erantzuna gobernuari zehatz-mehatz aurkeztu bazitzaion ere, zenbait ondorio orokor atera daitezke. Zalantzarik gabe, bigarren hizkuntzaren ikastaro osoa egin zuten funtzionario anglofonoak gauza ziren frantsesez modu ulergarrian mintzatzeko, lankide frankofonoekin eguneroko gaiez solasaldiak izateko, alegia. Baina frantsesa zen laneko hizkuntza? Kasu gehienetan ez. Zergatik? Hiru arrazoi daude. Lehena, lortutako gaitasun-maila ez zen nahikoa funtzionarioek bigarren hizkuntza lanean erabili ahal izateko. Bigarrena, funtzionario frankofonoek, ministeritza askotako tradizio diglosikoari eutsiz, ingelesa hartu zuten lan-hizkuntzatzat, lan-saioetan beti

«Herritarren ohizko jokaeraren erabateko aldaketa helburu duten hizkuntza legeek ez dute sarritan inolako eraginik izaten»

«Eginezinak diren printzipioak aplikatzeak sinesgarritasuna galtzea dakarkio hizkuntza politikari. Egia esan, egingarri dena betetzea ere oso zaila izaten da»

*«Quebecen
frankofonoek salbu,
herritar elebidunek
ia ez zuten hizkuntza
jokaera aldatu legeen
bidez»*

ingelesez arituz. Eta hirugarrena, frankofonoak anglofonoak baino elebidunagoak ziren.

Beti dago erlazorik hizkuntzaren eskuratze-maila eta erabileraren artean. Beste era batera esanda, hizkuntza jokaera hizkuntza gaitasunaren arabera da, eta gaitasuna inguru-nearen arabera. Irlandan egindako azterketak (COLA) oso ongi erakutsi zuen erlazio hori. Lehenik, hizkuntza gaitasunaren atalasea dago eta maila horren azpitik ia ez dago elkarren arteko komunikaziorik bigarren hizkuntzan. Atalase horren gaitetik hizkuntzaren erabilera (gaelikoa kasu honetan) ez da, besterik gabe gaitasunaren arabera, bi solaskideen gaitasun-mailen arteko aldearen arabera baizik: gainontzeko baldintzak berdinak izanik, zenbat eta antzerakoagoa izan gaitasun-maila, orduan eta aukera handiagoa egongo da bigarren hizkuntza erabiltzeko. Jakina, solaskideek hizkuntza hori erabiltzearen aldeko jarrera baldin badute (Mackey 1979).

Badirudi Kanadan egin den galdesorta batek azaldu berri den hipotesi hori egiaztatzen duela. 1987ko udazkenean Hizkuntza Ofizialetarako Komisarioaren agindupean Nouveau-Brunswick-en egin zen 2.853 funtzionarioz osatutako laginaren emaitzen arabera, hizkuntza jokaera (frantsesaren erabilera) hizkuntzaren inguruneak (frankofonoen masa kritikoa) eta hizkuntzetako gaitasun erlatiboaren mailak baldintzatzen dute (Carbon & Patenaude 1988).

*«Funtzionario
espezializatuen
motibazio nagusia
lana eta karrerari
loturik dagoela -eta
ez hizkuntzari-
kontutan hartzen
bada, beren jokaera
aldatzea ez da bat ere
erraza»*

Bi solaskide baino gehiago denean, lantalde gehienetan ohizkoa denez, gaitasun-mailen arteko aldeek bigarren hizkuntzaren erabileraren aurka jotzen dute (Brudner & White 1979). Irlandan, gure batzordearen batzarraldietan adierazi zidaten adibidea oso tipikoa da. Nazio-hizkuntzaren sustapenean ziharduten hainbat erakundetako hamar ordezkari osatzen zuten lantaldea izendatu zen. Lehenengo bileran bederatzi ordezkari bildu ziren eta laneko hizkuntza, pentsatu bezala, irlandera hutsa izan zen. Hamargarren kidea keltar hizkuntzen filologia konparatuan aditua zen eta bere hizkuntzaren ezagupena idatzizko hizkeran haundiagoa zenez mintzatutakoan baino, nahiago zuen ingelesez mintzatu. Horrela, oso denbora laburrean, denek ezagutzen zuten ingeles hizkuntza lantaldearen laneko hizkuntza bihurtu zen. Zein fenomeno da hau? Pertsonen arteko harreman guztietan, komunikazioari etekin hobea ateratzen laguntzen duen oharkabea moldaketa-prozesuak gertatzen dira. Komunikazioaren helburua ez da hizkuntza bera; bestelakoa da. Inor ez da mintzatzen mintzatzeagatik, hizkuntza ikastaroetan izan ezik.

Ohartu gabe, komunikazioa ahalbidetzen duen hizkuntza erabiltzera jotzen da. Eta oso zaila da gizakien arteko harremanetan gertatzen den moldaketa inkonzientea legeen bidez aldatzea. Horregatik, Kanadan ezinezkoa izan zen estatuko gobernuko funtzionario anglofonoen laneko hizkuntza modu nabarmenean aldatzea.

Hizkuntza Ofizialari Buruzko Legearen ondoren alderantzizkoa gertatu zen Quebec-en. Hemen, hizkuntza nagusia (frantziara) Kanadako hizkuntza minoritario ofiziala izanik, ahal izan zen frantziara laneko hizkuntza bakarria izateko hizkuntza politika aplikatzea.

Hala ere, Quebec-eko eskualde anglofonoetako hainbat udal-kontseilutan, beste moldaketa-mota bat agertu zen. Kontseilari anglofonoek, frantziara ulertu bai baina frantzieraz iharduteko gai ez zirenez indarra egin zuten, legeaz baliaturik, beren hizkuntza erabiltzeko, beti ere, kontutan harturik besteena ulertzen zutela. Eta, nahi gabe, hizkuntza moldatze-formula egokia asmatu zuten: elkar ulertzeko elebitasuna; hau da, bakoitzak bi hizkuntzak ulertzen ditu, baina bat baino ez du erabiltzen.

Formula horrek zenbait abantaila dakar. Batetik, helduari inolako kalterik egiten ez dion eskuratze-motaz lortutako gutxieneko gaitasuna eskatzen zaio funtzionarioari. Horrek bere gizabanako-duintasuna gordetzeko aukera ematen dio, menderatzen duen hizkuntza erabili behar baitu. Kanadan hasiak dira formula hori seriotasunez aztertzen Funtzio Publikoan, hizkuntza-jokaera aldatzeko beste formulek porrot egin ondoren.

Hizkuntza idatziari dagokionez, gauza bera esan behar da. Ondo menderatzen ez den hizkuntzan agiri bat idaztea -eskutitz ofiziala bada ere- oso gogaikarri izan liteke. Horrelako mugapenak lanaren eraginkortasunari kaltea ekar diezaioke. Bigarren hizkuntza irakurtzea, ordea, ez da hain aspergarri eta jakitunen artean automatismo linguistiko hedatuenetako bat da.

Ondorioa

Nola erantzun hasierako galderari? Zenbateraino alda liteke hizkuntza-jokaera legeen bidez? Legeek jokaera/gaitasuna eta gaitasuna/ingurunea osatzen duten triangeluan eragiten duten heinean. Aldaketa hori ez da gertatzen hilabeteetan urteetan baizik, kultura-nortasunaren osagairik berezkoenaz gain, elementuak elkarren artean eta etengabe aldatzen diren sistemen sistema baita hizkuntza, metatuz

*«Beti dago erlaziorik
hizkuntzaren
eskuratze-maila eta
erabileraren artean.
Beste era batera
esanda, hizkuntza
jokaera hizkuntza
gaitasunaren
araberakoa da, eta
gaitasuna
ingurunearen
araberakoa»*

*«Pertsonen arteko
harreman guztietan,
komunikazioari
etekin hobea
ateratzen laguntzen
duen oharkabeko
moldaketa-prozesuak
gertatzen dira. Eta
oso zaila da gizakien
arteko harremanetan
gertatzen den
moldaketa
inkonzientea legeen
bidez aldatzea»*

joan den talde-lanaren fruitua, kontaezinezko belaunaldien lan erraldoia.

Aipamenak

«Quebecen Hizkuntza Ofizialari Buruzko Legearen ondoren, ahal izan zen frantziara laneko hizkuntza bakarra izateko hizkuntza politika aplikatzea»

«Zenbateraino alda liteke hizkuntza-jokaera legeen bidez? Legeek jokaera/gaitasuna eta gaitasuna/ingurunea osatzen duten triangeluan eragiten duten heinean»

BALIBAR, R. (1985) *L'institution du français: essai sur colinguisme des Carolingies à la République*. Paris: Presses Universitaires de France.

BIBEAU, G.; W.F. MACKEY; H.P. Edwards & R. Leblanc (1976) *Rapport de l'étude indépendante sur les programmes de formation linguistique de la Fonction publique du Canada*. Ottawa: Conseil du Trésor (voir tomes 1 et 12).

BRUDNER, L.A. & D.R. White (1979). "Language Attitudes: Behavior and Intervening variables". In: *Sociolinguistic Studies in Language Contact* Publié par W.F. Mackey & J. Ornstein. La Haye: Mouton p. 51-68.

CARBON, J.&J.-G. Patenaude (1988). "La langue de travail au Nouveau-Brunswick: francophones et anglophones se déclarent d'accord". *Langue et Société* 24: 15-17.

CONSEIL DE L'EUROPE (1988). *Charte européenne des langues régionales et minoritaires*. Strasbourg: Conférence permanente des pouvoirs locaux et régionaux de l'Europe (Rapport de 23 e session).

COLLINDER, B (1935) *Spakstrid och nationalitetskamp i Finland*. Stockholm: Bonniers Forlag 1935.

DE CERTEAU, M. et al (1975) *Une politique de la langue: la Révolution française et les patois*. Paris: Gallimard.

FENET, A. (1981) "Il n'y a pas de minorité en France". *Pluriel* 25: 79-80.

GWEGEN, H.W. (1975) *La langue bretonne face à ses oppresseurs*. Quimper: Nature/Bretagne.

MACKEY, W.F. (1979) "L'irredentisme linguistique: une enquête témoin (CIRB Publication B-72)". In: *Plurilinguisme: normes, situations, stratégies. Etudes sociolinguistiques*. Réunies et présentées par G. Manessey et P. Wald, Paris: Éditions l'Harmattan, p. 257-283.

(1980) "Prolegomena to language Policy Analysis". *Word* 30 (1/2) : 5-14.

(1983) "U.S. Language Status Policy and the Canadian Experience". In: *Progress in Language Planning: International Perspectives*. Edited by J. Cobarrubias & J.A. Fishman. Berlin: Mouton.

McRAE, K.D. (1978) "Bilingual Language Districts in Finland and Canada: Adventures in the transplanting of an Institution". *Canadian Public Policy* 4: 332-351.

PHILIPPS, O.E. (1975) *Les luttes linguistiques en Alsace jusqu'en*

1945. Strasbourg: Culture alsacienne.

PIRIOU, Y.B. (1971) *Défense de cracher par terre et de parler breton*. Honfleur (Calvados): Oswald.

William F. Mackey

*Elebitasunari buruzko Nazioarteko Ikerketa-Zentrua
Laval Unibertsitatea, Quebec*

Itzultzaileak: Araceli Diaz de Lezana
Imanol Agote

¹. Germanofonia izan arren, Karlomagno latinarekiko maitasuna erakutsi zuen. Etengabe sustatu zuen latina, bai Elizaren bai herriaren hizkera izateko (lingua romana rustica). Horri esker, latinak luzaragoan iraun zuen eta, aldi batez, Erdi Aroko frantsesa izan zen (ikus Balibar 1985).

² Frantziako Iraultzaren garaian (1794), "Assemblée Nationale"k onartu zituen lehen dekretuen artean Grégoire abadearen "Rapport sur la nécessité et les moyens d'anéantir les patois et d'universaliser l'usage de la langue française" izeneko lanean oinarritutakoa zegoen. Patois edo eskualde-hizkuntzen artean bretoiera eta proventzalera zeuden (ikus Michel de Certeau et al.; 1975).

³ Europan izandako hizkuntza-debekuei buruzko ikerketak egin dira bretoiera, euskara, proventzalera, kataluniera, irlandera, kymruera eta beste hainbat hizkuntza aztertu direlarik (ikus adibide bezala: Piriou 1971, Philipps 1975, Gwegen 1975, eta Fenet 1981).

⁴ Agiriak Europako ohizko eskualde-hizkuntzak besterik ez ditu aipatzen, hots bretoiera eta euskara; ez ordea, etorkinen hizkuntzak, turkiera eta arabiera kasurako. Estatu bakoitzaren esku uzten du hizkuntza horiek bere lurraldearen barruan identifikatzeko ardura (ikus: Conseil de l'Europe -Europako Kontseilua- 1988; ikus ere, lan honetan M.J.M. Woehrling-en ekarpena).

⁵Jag minns densamma skriva
på finska i ett brev
som han sitt svar att giva
till frankerike skrev.
(Gogoratzen naiz, Frantziatik bidalitako gutun
bati suomieraz erantzun ziola) (Collinder-ek
esandakoa 1935).

*«Hizkuntza
jokaeraren aldaketa
ez da gertatzen
hilabeteetan urteetan
baizik, kultura-
nortasunaren
osagairik
berezkoenaz gain,
elementuak elkarren
artearen eta etengabe
aldatzen diren
sistemen sistema
baita hizkuntza»*